




SENEGAL

“Hiena eta erbía”

Liburu honetan egileek Senegaleko herri-ipuín bat aurkezten digute kultura, leíendak, kondairak, herriko ospakizunak, ohiturak eta gastronomia lagunduta. Gure artean kanpotik etorri eta gurekin bizi direnek beraíen kultura hobeto ezagutzeko bide ematen digute.

Bilduma honen helburua aniztasunaren aldeko apostua da. Kultura ezberdinen arteko elkarbizitzea, ezagutza eta errespetua landu nahi dugu

Kokapena
Aurkezlea

Ipuína: “Hiena eta erbía”

Txikitako pasadizoak

Ospakizunak

Gastronomia

Errezeta

Didaktika

KOKAPENA

SENEGAL, AFRIKAKO LEHOIA




SENEGAL



SENEGALEK LEHOI BATEN ANTZA DU.
SENEGAL MENDEBALDEKO AFRIKAKO
KOSTAN DAGO. SENEGALEN KULTURA ASKO
ETA ASKO BIZI DIRA ELKARREKIN.
HIZKUNTZA OFIZIALA FRANTSESA BADA
ERE, KULTURA BAKOITZAK BADU BERE
HIZKUNTZA, ZABALDUENA WOLOF IZENA DU.

“TERANGA” HITZAK ABEGI ONA ADIERAZI
NAHI DU, ETA SENEGALDARREN EZAUGARRI
NAGUSIENA DA, MUSIKA ETA DANTZAREKIN
BATERA.

GAUR EGUN EZAGUNAK DITUGUN
MUSIKA-TRESNA GEHIENAK AFRIKAN
SORTUAK DIRA.



AURKEZLEA

FATUMATA, DAKAR HIRIAN JAIOA, SENEGAL



Fatumata Niata naiz, 34 urte ditut. Aitarekin, senarrarekin eta 10 hilabeteko bi semerekin bizi naiz Markinan.

Dakar hirian jaio nintzen. Gure arbasoak Casamance aldekoak dira, beraz, Diola etniakoak gara. Guk “txola” ahoskatzen dugu. Gure herria Senegaleko hegoaldean dago. Oso leku hezea da, Casamance ibaiak zeharkatzen du eta.

Leku ederra benetan! Oso berdea da. Erreka asko daude. Sarritan

piraguaz mangladi eta urtegietan zehar joaten gara. Senegaleko iparraldea, berriz, lehorra da.

Diola garenez, gure artean beti diolaeraz egiten dugu berba, baina Dakar hiriko jendearekin woloferaz.

2003ko irailean senarra eta biok bizimodu hobe baten bila etorri ginen hona. Hemen familia dugu eta. Aitak paperak prestatu zizkigun eta etortzeko esan zigun. Dakar hirian beste 14 urteko



seme bat daukagu. Familia erdia Senegalen dago, eta beste erdia hemen. Familiako gizon bi Lekeition ari dira lanean eta aita gurekin, Markinan.

Gure herrira itzuli nahi dut. Egia esateko, hemen diruagatik gaude. Hango ohiturak eta kultura oso gustuko ditut. Dirurik banu, orain itzuliko nintzateke. Euskal Herria ere gustatzen zait, jendea oso atsegina eta zabala da. Hala ere, herrimin handia daukat.

Hemen jendez inguraturik bizi bagara ere, ez ditugu auzokideak ezagutzen. Honek benetan arreta deitu dit etorri nintzenetik. Gehienek agurtzen zaituzte baina ez dago benetako harremanik. Jakina, ez duzu galdetu behar zergatik batzuek ez duten agurrik ere egiten.

Markinako jendea oso jatorra da, benetan. Galderak egin eta, segituan erantzuten dizute atsegin handiz, laguntza eskainiz. Hala ere, ez dira zure arazoetan sartzen. Senegalen, adibidez, jendea beti dago erne, eta zure arazoetan laguntzeko prest daude. Hango kultura zeharo ezberdina da.

Nik neuk ez dut inondik inora arrazakeria nabaritu, zorte handia izan omen dut. Dena den, ez diot garrantzi handirik ematen. Baina bai nire herrikideek esaten dute, arrazakeria kasuak egon badaudela.

